

## **NIRE PARKEA**

*Amaierarik ez duen leku bat, ezagutzen dut.*

*Tigreak robotekin dantzan*

*eta amonak, yo-yo jokoan*

*Hegan egin daitekeen leku bat, ezagutzen dut*

*pilotarekin daude usoak*

*eta aitonak charleston dantzan.*

***Hau bai parkea, nire parkea***

***jolastera noana, amets egitera .***

***Hau bai parkea, nire parkea***

***Non Salto eta hegan posible dudan.***

*Amaierarik ez duen leku bat, ezagutzen dut.*

*Poseidonek goilaraz jan ta jan*

*Sardexkarekin olagarroak.*

*Igeri egin daitekeen leku bat, ezagutzen dut*

*gaiztoek besarkadak ematen dituzte*

*eta gominolak opari ere.*

***Hau bai parkea, nire parkea***

***jolastera noana, amets egitera .***

***Hau bai parkea, nire parkea***

***Non Salto eta hegan posible dudan.***

*Amaierarik ez duen leku bat, ezagutzen dut.*

*Helduen agindurik gabe*

*Txikienak jaun eta jabe.*

*Hau bai parkea, nire parkea*

*jolastera noana, amets egitera .*

*Hau bai parkea, nire parkea*

*Non Salto eta hegan posible dudan.*

## **GUK AHAL DUGU**

*Tontorra altuegia bada*

*eta hegalak lotutak badituz*

*Jauzia haundiegia bada*

*eta helduko ez zarela uste baduzu*

*Bidea ilun luna denean*

*eta ezin bazara pasa zuhaitzen artean*

*erabat lehertuta zaudenean*

*eta hasiko bazara negar betean*

***Go-gogoratu !***

***dena posible dela***

***eta denon artean lortzeko gai garela.***

***Go-gogoratu !***

***hobetuko dugu!***

***saiatu ezkerro zuk zeuk lortuko duzu!***

*Lasai egon lehena ez bazara*

*heltzea baita onena.*

*Honetan saiakera galtzen baduzu*

*arnastu eta berriz hartu.*

*Nekaturik zaudela uste baduzu*

*mina oinez egitean,*

*dena oso zaila iruditzen bazaizu*

*ez etsi berriz saiatu.*

***Go-gogoratu !***

***dena posible dela***

***eta denon artean lortzeko gai garela.***

***Go-gogoratu !***

***hobetuko dugu!***

***saiatu ezkeru zu zeuk lortuko duzu!***

## **MARTINA ETA AUSENTZIA**

Zure oroitzapenaz beterik,  
Igerian noa itsas barrenetik.

Ohatze urdinaz inguraturik,  
gerora goratu, urgaineratutik

Haizeak kontuak xuxurlatzen dizkit.  
ileak ukitu, egin dit irri

Zure oroitzapenaz beterik.  
zeru lausoan hegan noa ni.

Mendiak daude urrun hemendik.  
Ta lanbroa dago gertu zugandik.

Soroak loratu direlarik.  
landak, herrixkak daude bizirik.

Ametsetan egin didazu irri.

"Martina maitia, hemen nago ni"